

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN  
TOKI ADMINISTRAZIOAADMINISTRACIÓN LOCAL DEL  
TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

## Udalak

## AMURRIO

3450

**Behin betiko esleitzea "Amurrioko Bideko kalea urbanizatzeko obren proiektua"ren baitako lanak egiteko kontratua.**

Alkatearen 2009ko maiatzaren 6ko ebazpen baten bidez behin betiko esleitu zen idazpuruan aipatzen den kontratua. Horiek horrela, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 138. artikulua xedatutakoarekin bat etorritz, argitaratu egiten da.

## 1. Erakunde esleitzaila

- a) Erakundea: Amurrioko Udala.  
b) Espedientearen zenbakia: 09049E204

## 2. Kontratuaren xedea

- a) Kontratu mota: obra kontratua.  
b) Xedea: Amurrioren, Bideko kalea urbanizatzeko lanak.

## 3. Izapidetzea eta prozedura

- a) Izapidetzea: presakoa.  
b) Prozedura: negoziatua, publizitaterik gabekoa.

4. Kontratuaren prezioa (lizitazio oinarria): 172.250,67 euro gehi 27.560,11 euro (BEZa), hau da, guztira, 199.810,78 euro.

## 5. Behin-behineko esleipena:

- a) Data: 2009ko apirilaren 6a.  
b) Kontratista: C.I.G. Obra Civil, SL  
c) Nazionalitatea: espainiarra.  
d) Esleipenaren zenbatekoa: 199.763,03 euro, BEZa barne.

e) Behin-behineko esleipena argitaratu zen eguna: 2009ko apirilaren 22ko ALHAO, 46 zenbakia.

## 6. Behin betiko esleipena:

- a) Data: 2009ko maiatzaren 6a.  
b) Kontratista: C.I.G. Obra Civil, SL  
c) Nazionalitatea: espainiarra.  
d) Esleipenaren zenbatekoa: 199.763,03 euro, BEZa barne.

Amurrio, 2009ko maiatzaren 6a.– Alkatea, PABLO R. ISASI AGUIRRE.

## AMURRIO

3507

**Behin betiko onarpena ematea azterketa eskubideengatiko tasa eta tasa hori arautzen duen 7 zenbakiko udal zerga ordenantzaren 16. eranskina ezartzeari.**

Udalbatzak, 2009ko martxoaren 26ko bilkuran, behin-behineko onarpena ematea erabaki zuen azterketa eskubideengatiko tasa eta tasa hori arautzen duen 7 zenbakiko udal zerga ordenantzaren 16. eranskina ezartzeari (expediente zenbakia: 09146C22154), eta 39 zenbakiko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (2009ko apirilaren 1a) eman zen argitara. Erabaki horren aurkako erreklamazioak aurkezteko epean inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, halaxe agintzen baitu Toki Ogasunak arautzen dituen legearen testu bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17-3. artikuluan. Horrela, bada, jendaurrean jartzen da, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70-2 artikuluan eta aipatutako Legegintzako Errege Dekretuak (Toki Ogasunak arautzen dituen legearen testu bateratua onartzen du) 17-4 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako. Ordenantza honen testu osoak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra. Hona hemen hitzez hitz testua bera:

## Municipios

## AMURRIO

3450

**Adjudicación definitiva del contrato de ejecución de las obras comprendidas en el "Proyecto de Obras de urbanización de la calle Bideko, en Amurrio."**

Por Resolución de Alcaldía de fecha 6 de mayo de 2009, se adjudicó definitivamente el contrato referido en el encabezamiento, lo que se publica a los efectos del art. 138 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público:

## 1. Entidad adjudicadora.

- a) Organismo: Ayuntamiento de Amurrio.  
b) Número de Expediente: 09049E204

## 2. Objeto del contrato.

- a) Tipo de contrato: Contrato de obra.  
b) Descripción del objeto: Obras de urbanización de la calle Bideko, en Amurrio.

## 3. Tramitación, procedimiento.

- a) Tramitación: Urgente.  
b) Procedimiento: Negociado sin publicidad.

4. Precio contrato (base de licitación): Precio 172.250,67 euros (mas 27.560,11 euros de IVA.), es decir, un precio total de 199.810,78 euros.

## 5. Adjudicación Provisional:

- a) Fecha: 6 de abril de 2009.  
b) Contratista: C.I.G. Obra Civil, S.L.  
c) Nacionalidad: Española.  
d) Importe de adjudicación: 199.763,03, IVA incluido.

e) Fecha de publicación de la adjudicación provisional: BOTHA número 46, de 22 de abril de 2009.

## 6. Adjudicación Definitiva:

- a) Fecha: 6 de mayo de 2009.  
b) Contratista: C.I.G. Obra Civil, S.L.  
c) Nacionalidad: Española.  
d) Importe de adjudicación: 199.763,03, IVA incluido.

En Amurrio, a 6 de mayo de 2009.– El Alcalde, PABLO R. ISASI AGUIRRE.

## AMURRIO

3507

**Aprobación definitiva de la Imposición de la Tasa por Derechos de Examen y al aprobación del Anexo 16 de la Ordenanza Fiscal Municipal nº 7, regulador de la correspondiente Tasa.**

Transcurrido el plazo para la presentación de reclamaciones contra el acuerdo adoptado por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 26 de marzo de 2009, y publicado en el BOTHA número 39 de 1 de abril de 2009, relativo a la aprobación provisional de la Imposición de la Tasa por Derechos de Examen y al aprobación del Anexo 16 de la Ordenanza Fiscal Municipal nº 7, regulador de la correspondiente Tasa (expediente 09146C22154), sin que se haya formulado reclamación alguna, de conformidad con lo establecido en el artículo 17-3, del Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley reguladora de las Haciendas Locales, se eleva a definitivo dicho acuerdo, lo que se hace público a los efectos previstos en el artículo 70-2, de la Ley 7/1985, de 2 de abril, y artículo 17-4 de del citado Real Decreto Legislativo 2/2004, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley reguladora de las Haciendas Locales, con la publicación del texto íntegro de la referida Ordenanza fiscal que surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el BOTHA, cuyo contenido literal es el siguiente:

## 7.16. eranskina AZTERKETA ESKUBIDEAGATIKO TASA

### 1. artikulua. Lege oinarria

Amurrioko Udalak, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginak 20.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, zerga ordenantzak honen bidez arautuko den azterketa eskubideengatiko tasa ezartzen du. Ordenantzak jasotako arauak bat datoz aipatutako testu bateginaren 57. artikulua jasotakoarekin.

### 2. artikulua. Zergagaia

Zergagaia da jarduera teknikoa edota administratiboa, lehiaketa, oposizio eta lehiaketa-oposizioetan parte hartzeko eskaerak eragindakoa. Jarduera horiek Amurrioko Udalak edo bere erakunde autonomoek deituta txanda asketik edo barne promozioz egin daitezke, funtzionarioen edo lan kontratupekoen lanpostu hutsak jabetzan hartzeko.

### 3. artikulua. Sortzapena

Aurreko artikulua aipatutako hautaprobetan izena emateko eskaera egiterakoan ordainduko da tasa, deialdiak jasotako moduan, eta ez dira izapidetuko ordainketa egiaztatzen ez duten eskaerak, hau da, ordaindu izanaren egiaztatzea udal diruzaintzan aurkeztuta egiaztatzen ez duten eskaerak.

### 4. artikulua. Subjektu pasiboa

2. artikulua jasotako hautaprobetan parte hartzea eskatzen duten pertsona fisikoak izango dira tasaren subjektu pasiboak.

### 5. artikulua.- Zerga kuota.

1.- Tarifa hauek aplikatuz ateratakoa izango da zerga kuota:

- a) A1 eta A2 taldeetan karrerako funtzionario edo lan kontratupeko langile finko sartzeko eskatzeagatik, talde horiei dagokien titulazioarekin: 20 euro.
- b) B edo C1, C2 eta E taldeetan karrerako funtzionario edo lan kontratupeko langile finko sartzeko eskatzeagatik, talde horiei dagokien titulazioarekin: 10 euro.

2.- Hautaprobetan deialdietan xedatuko da berariaz tasagatik ordaindu beharrekoa.

### 6. artikulua.- Hobaria.

Langabezian dauden subjektu pasiboek tasaren % 50eko hobaria izango dute, eskaera egiterakoan, eta horretarako, 2. artikuluko eskaeran jaso beharko dute langabezian daudela.

### 7. artikulua. Likidazioa eta ordainketa egitea

Autoliquidazio erregimenean eskatuko da tasa, izena emateko eskaerarekin batera.

Eskaerak aurkezteko epearen barruan ordainduko da ordaindu beharrekoa, udalak horretarako zehaztutako kontuan dirua sartuta. Ordainketa agirian, zeinaren orijinala edo kopia eskaera orriarekin batera aurkeztuko den, interesdunaren eta plazaren izena jaso beharko dira.

Azterketa eskubideagatiko tasa ordaindu dela justifikatzen ez bada, bazter utziko da izangaia, salbu eta justifikazio eza Administrazioaren huts batek eraginda izan bada.

## AZKEN XEDAPENA

Azterketa eskubideengatiko tasa arautzen duen 7.16 eranskina ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko du harik eta aldatu edo indargabetzen den arte.

Amurrio, 2009ko maiatzaren 13a.- Alkatea, PABLO R. ISASI AGIRRE.

## Anexo 7.16 TASA POR DERECHOS DE EXAMEN

### Artículo 1. Fundamento legal

El Ayuntamiento de Amurrio, al amparo de lo dispuesto en el artículo 20.1 del Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo establece la tasa por derechos de examen que se regulará por la presente Ordenanza Fiscal, cuyas normas atienden a lo prevenido en el artículo 57 del citado Texto Refundido.

### Artículo 2. Hecho Imponible

Constituye el hecho de la Tasa la actividad técnica y/o administrativa desarrollada con motivo de la solicitud para concurrir como aspirante a concursos, oposiciones y concursos-oposiciones, sean de carácter libre o de promoción interna, que convoque el Ayuntamiento de Amurrio o sus Organismos Autónomos para cubrir en propiedad plaza vacante de funcionarios o laborales.

### Artículo 3. Devengo

El devengo de la tasa se producirá en el momento de realizar la solicitud de la inscripción en las pruebas selectivas a que se refiere el artículo anterior y en la forma que se haga constar en la convocatoria, no tramitándose aquellas solicitudes que no acrediten el pago mediante la presentación del justificante de ingreso en la Tesorería Municipal.

### Artículo 4. Sujeto pasivo

Serán sujetos pasivos de la tasa las personas físicas que soliciten la inscripción como aspirantes en las pruebas selectivas a que se refiere el artículo 2.

### Artículo 5. Cuota tributaria

1.- La cuota tributaria resultará de aplicar las siguientes tarifas:

- a) Por solicitar el acceso como funcionario de carrera a los grupos A.1 y A.2, o como laboral fijo con titulación equivalente a la de estos grupos: 20 euros
- b) Por solicitar el acceso como funcionario de carrera a los grupos B o C.1, C.2 y E, o como laboral fijo con titulación equivalente a la de estos grupos: 10 euros

2.- Las cuantías exigibles por la tasa se consignarán expresamente en las disposiciones que convoquen las pruebas selectivas.

### Artículo 6. Bonificaciones

Gozarán de una bonificación del 50% de la Tasa los sujetos pasivos que en encuentre en situación laboral de desempleo en el momento de realizar la solicitud, debiendo acreditar tal situación en la solicitud a que se refiere el artículo 2.

### Artículo 7. Liquidación e ingreso

La Tasa se exigirá en régimen de autoliquidación simultáneamente con la solicitud de la inscripción.

El pago deberá efectuarse dentro del plazo de presentación de solicitudes, realizando el ingreso en la cuenta que a tal efecto determine el Ayuntamiento, consignándose en el documento de ingreso, cuyo original o copia compulsada necesariamente deberá acompañarse a la instancia, el nombre del interesado y la denominación de la plaza a la que concurre.

La falta de justificación del abono de la tasa por los derechos de examen determinará la exclusión del aspirante, salvo que dicha falta de justificación se haya debido a un error por parte de la Administración.

## DISPOSICIÓN FINAL

El Anexo nº 7.16 regulador de la Tasa por derechos de examen, entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA, y permanecerá vigente hasta que se apruebe su modificación o derogación.

En Amurrio, a 13 de mayo de 2009.- El Alcalde, PABLO R. ISASI AGIRRE.